



DBH1



FITXA TEKNIKOA

AUTOREA: Jon Arretxe

IZENBURUA: *Beti iparralderantz*

ILUSTRATZAILEA: Cristina Fernández

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Donostia, Erein, 2014

ORRIALDE KOPURUA: 157

BILDUMA: Auskalo, 47

ISBN: 9788497469395

ADIN TARTEA

12 urtetik aurrera

IRUZKINA

Drissa, Maliko nerabe bat, pozik bizi da gurasoekin eta anai-arrebekin, baina aitak lana galduko du eta, ondorioz, euren bizimoduak okerrera egingo du. Erabaki gogorra izan arren, aitak Europara joatea erabakiko du. Haren berriak jasoko dituzte, baina halako batean berriak eten egingo dira, eta Drissak aitaren bila joatea erabakiko du. Ia dirurik gabe ekingo dio iparralderantzko bidaia luzeari.

Laster aurkituko du bidaia laguna, Abdou. Harekin hainbat estualdi eta abentura pasatuko ditu eta, azkenean, ametsa lortuko dute bi lagunek, nahiz eta ez haiek imajinatutako eran. Jon Arretxe idazlea eta bidaiaria da. Lan honetan, aurrekoan bezala (*Harresi handirantz, 1997*), bigarren ezaugarri hori nabarmentzen da.

Liburuan Afrikako ipar mendebalde ezagutuko ditugu, bai bertako ohiturak, eta baita gatazkak ere: Tuaregak, kabiliarrak, islamista erradikalak, soldatu frantsesak...

Abentura eleberri bat da, erritmo bizi-bizikoa, etorkinen ibilbideetan barneratzen gaituena. Marrazkiek testuaren osagarri dira eta liburuaren hasierako mapa oso lagungarria da bidaiaren nondik norakoa jakiteko.



IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

1. **Geografia, bidaiak:** *Google Maps* edo antzeko baliabideen bidez protagonistek zeharkatzen dituzten lurraldeak arakatu.

α. Liburuan izendatutako lekuak: Kayes, Bamako, Tonbuktu, Taudenniko gatz meategia, Tanezrouft basamortua, Bordj-Mokhtar (?), Taghit, Tanger, Tarifa?, Bermeo.

Ibilbidearen mapa marraztu. Erabilitako garraio mota, zeharkatutako orografia, herrialdeak...

β. Inguru horietako ezaugarri sozioekonomikoetan nahi adina sakondu daiteke. Frantziar wikipedia da zeregin horretarako iturri aberats eskura erraza.

γ. **Mendebaldeko Saharatik** "gertu" bidaiatzen dutenez, aukera polita da herrialde horren berri jasotzeko: **Tinduf** eta errefuxiatuen kanpalekuak, Marokok hartuta dien lurraldea...

δ. Saharako kulturaren barneratzeko aitzakiari helduta, literatur ale berezi bat irakurtzeko aukera ematen du:

- Smara / Paula Carballeira. Pamiela, 2012

2. **Etorkinak:** lehen eta hirugarren munduaren arteko harremanak, zailtasunak, mugak pasatzeko erak eta abar.

EZTABAIDA: Immigrazioa eta emigrazioa, atzerritarrak gurean, gu atzerrian.

*Zerrendatu zure familiako migrazioak, hiru belaunaldietan gutxienez.

*Nork, noiz, eta nola da zilegi migrazioa? Nork du zilegi mugak jartzea migrazioari?

*...

3. **Giza eskubideak:** Esklabismoa, salerosketak, emakumearen egoera latza.

α. **SOS arrazakeria** erakundearen berri eman. Kide bat gonbidatu gai hauei buruz hitzaldia ematera.

β. Astebetean egunkariak arakatu; gai hauekin lotura daukatela iruditzen zaien albisteak bildu. Eztabaidatu zertan duten lotura albisteok proposatutako gaiarekin.